


2

Osasuna



Osasuna munduko ondasuna

1. Sendagileak, petrikiloak...


Jarduera



Mintzamena

Elkartu binaka eta hemen dituzun zenbait galderari erantzuna eman.

- Gaixotzen zarenean, sendagilearengana joaten zara?
- Zeure sendagilearengan ba al duzu konfiantzarik?
- Amona eta amaren erremedioetan sinesten duzu?
- “Medikuntza alternatiboa” (homeopatia, sendabelarrak...) deitzen denaren eskutan jarri al zara inoiz? Ez bazara inoiz jarri, jarriko zinateke?



2. Hotzeria

Jarduera



Entzumena


Senar-emazte batzuen arteko elkarrizketa entzungo duzu orain. Senarra gaixorik dago.

Jaso beheko laukitxoetan senarrak dituen sintomak eta ez dituenak.

Dituen sintomak	Ez dituenak

3. Jarduera


Gogoan hartu!



Lexikoa

Hemen bildu ditugu aurreko entzungaietan ateratako hitz batzuk. Jarri marrazki bakoitzari dagokion zenbakia.

- 1. Gorputzaldi eskasa.
- 2. Doministikua.
- 3. Eztula.
- 4. Hotzikara.
- 5. Zorabioa.
- 6. Sukarra.
- 7. Botagalea.



N. Mina, gorputz egoerak...

Gorputz egoerak eta sintomak deskribatzeko oso baliagarriak dira adierazpide hauek.

1. Mina non duzun adierazteko:

NONGO

Buruko	}	MINA dut
Eztarriko		
Bizkarreko		
Haginetako		

NONGO

Buruko	}	MINEZ nago
Eztarriko		
Haginetako		

2. Gorputz egoerak:

Beroak nago / bero naiz
 Hotzak nago / hotz naiz
 Egarririk nago / egarri naiz
 Goseak nago / gose naiz
 Logaleak (logurak) nago / logale (logura) naiz
 Botagale / botagura / botalarri naiz
 Pixagale / pixagura / pixalarri naiz
 Kakagale / kakagura / kakalarri naiz



3. Atzizkiak

ZER DA?

Hizkuntza askotan bada hitz berriak sortzeko baliabide indartsu bat: atzizkiena. Hitz bati esanahia duen "zati" edo bukaera bat eranstea da.

-**ari** atzizkiak agentea, jarduera profesionala adierazten du. Beraz, *kamioi* hitzari, adibidez, eransten badiogu, hitz osoaren esanahia aldatzen da.

Kamioi > kamioilari (kamioia gidatzen duena)

-**gile** atzizkiak zerbait egiten duena adierazten du eta lehengo hitzari erantsita, hitz osoaren esanahia aldatzen da.

Kamioi > kamioigile (kamioia egiten, fabrikatzen duena)

-**kada** atzizkiak ontzi batean sartzen den kopurua, kantitatea adierazten du.

Kamioi > kamioikada (kamioi batean sartzen den karga kantitatea)




-KA

Oraingo honetan -ka atzizkiari gainbegiradatxo bat emango diogu.

Zer adierazten du?

Errepikatzen den ekintza adierazten du eta gaztelerazko gerundioaren parekoa da gehienetan.

PRAKTIKARI EGIN DIEZAIOGUN!



Zuriuneak dituzten esaldi batzuk emango dizkizugu, behean dagoen poltsa horretatik hitz egokiak aukera ditzazun. Ea asmatzen duzun!

- 1- Foruzainek manifestaria _____ atera zuten Parlamentutik.
- 2- Poltsiko telefonotik etxera _____ aritu zen, baina inork ez zuen hartu.
- 3- Gaur ezin izan dut lorik egin gau osoan; izan ere aldameneko etxeko zakurra _____ aritu da isildu gabe.
- 4- Bart kontzertuan jendea oso gustura geratu zen kantariarekin eta bukaeran altxatu eta _____ hasi zen.
- 5- Felipe pozik eta _____ zihoan gaur goizean lanera, txori bat baino alaiago.
- 6- "Nazkatuta nago txakur horretaz. Isiltzen ez bada, _____ egingo diot".
- 7- Hartu zuen katarroaren eraginez, _____ eta _____ pasatu zuen egun osoa Fernandok.

harrika

txaloka

bultzaka

zaunkaka



deika

txistuka

doministikuka

eztulka

4.
Jarduera

Noizko emango didazu txanda?




Entzumena

Entzun oraingoan anbulatorioko administrari eta deitzen duenaren arteko elkarrizketa.

Erantzun galderari

– Noizko eman diote txanda?



N. Txanda eskatzeko

NOZIOAK

Aurreko entzungaian hauxe erabiltzen da txanda eskatzeko:

Txanda eskatzeko deitzen dut, Arrieta medikuaren kontsultarako.



Badira adierazpide gehiago hori azaltzeko:

Arrieta medikuaren (Arrietaren) kontsultarako txanda

eskatu nahi nuke eskatzeko deitzen dut nahi nuen / nuke

¿Para cuándo? galdetzeko hauxe erabiltzen da: NOIZKO

Noizko?

- biharko, gaurko, atzoko...
- astelehenerako, astearterako,
- urtarrilerako, otsailerako,
- 13rako, 15erako
- 10,30etarako, 12etarako, hamarrak laurden gutxitarako

5. Sendagilearenean

Jarduera



Entzumena

A

Aztertu ondoko hitzak, sintoma gehiago deskribatzen lagunduko dizute eta.

Erreparatu negritan dagoenari eta ea esanahiari antzematen diozun.


1. Bihotzerrea

2. Botaka egin

3. Beherakoa

4. Idorreria

5. Sabela handiturik



B

Aurrekoa nahiko pista izan ez bada, hemen dituzu hitz horien guztien gazte-lerazko itzulpenak gurutzegrama honetan bilduak.

Aurkitu gaztelerazko hitzak.

1

3

2

5

4

N.

Maiztasuna

NOZIOAK

Medikuak hauxe esan dio gaixoari:

Hartu pastila bat
otordu nagusien
ondoren



Maiztasuna euskaraz azaltzeko, hona hemen modu batzuk:

1. Noiztik noizera



- Sendagaia lau ordu**TATIK** lau ordu**TARA** hartu.
- **Noiztik noizera** hartu behar dut jarabea?
- Hamar minutu**TIK** hamar minutu**RA**
- Ordu erdi**TIK** ordu erdi**RA**

2. Noizero? Egun**ERO**



- **Noizero** hartu behar dut jarabea?
- Minutu**ORO**, ast**ERO**, arratsald**ERO**, asteart**ERO**...

3. Zenbatetan? AskoTAN



- Zenbate**TAN** izaten duzu goragalea? Asko**TAN**, batzu**ETAN**, gutxi**TAN**...
- Zenbate**TAN** hartu behar dut jarabea? **BEHIN**, bi**TAN**, hiru**TAN**...

4. Zenbat aldiz? (Zenbat bider?)



- Zenbat aldiz (bider) joaten zara dentistarengana?
- **BEHIN**, bi, hiru **aldiz (bider)**...

5. AsteAN BEHIN



A

Denbora
NON singularra

+

Maiztasuna
Behin...

- Aste**AN** **BEHIN** edo bi**TAN** izaten dut goragalea.
- Hilabete**AN** hiru**TAN** (hiru aldiz).
- Urte**AN** **BEHIN** joaten naiz okulistarengana.

B

Zenbatzailea
bost, sei, bi...

+

Denbora
NONDIK singularra

+

Maiztasuna
Behin...



- Bost urte**TIK** **BEHIN** joaten naiz dentistarengana.
- Sei hilabete**TIK** bi**TAN**.

6.

Jarduera

Mina, gaixotasun gehienen muina



Idazmena



Mintzamena

Osasun alorreko zenbait hitz, nozio... ikasi dituzu. Jarri hiruunaka. Zuetako bat txanda ematen duen administraria izango da, beste bat sendagilea eta bestea gaixoa. Aurrena gaixoak zerrenda bat bete behar du dituen sintoma guztiekin, gero ambulatiora deitu behar du txanda eskatzeko. Ondoren sendagilearengana joango da bere arazoa azaltzera. Sendagileak diagnostikoa egingo dio eta botikaren bat errezetatuko dio, zenbat hartu behar duen esanez.



7.
Jarduera

Egin dezagun barre pixka bat



Entzumena

Medikuen kontura barre asko egin daiteke. Entzun txiste batzuk:

- Ezin edan
- Hiltzorian
- Oxigenoa jarri
- Handikeria
- Potentzia jaitsi



	Ezin edan	Hiltzorian	Oxigenoa jarri	Handikeria	Potentzia jaitsi
Zein da gehien gustatu zaizun txistea?					
Eta gutxien?					
Entzunak zenituen ala berriak dira zuretzat?					
Erraz ulertzen dira?					

Txiste hauetaz aparte, badakizu besterik?

www.habe.org/ikaslearengunea/txistek

"Errezeta elektronikoa"



Aurreko jardueretan errezetak aipatu ditugu. Inoiz izan al duzu errezetarik esku artean? Sendagilearen letra ulertu al duzu?

Irakurri arretaz artikulua hau.

ERREZETA ELEKTRONIKOAREKIN, OSASUN ZERBITZUA HOBETUZ


Anbulatorioetako jende-ilarak saihesteko asmoz, Eusko Jaurlaritzak proiektu berri bat jarri nahi du abian: errezeta elektronikoa. Helburu nagusia medikuek agindutako senda-gaia errezeta gabe lortu ahal izatea da.

XABIER ELIZBURU

Eusko Jaurlaritzak aurten jarri nahi du martxan "errezeta elektronikoa", beste autonomia erkidegoetako joerari jarraiki. Gipuzkoako Farmazi Elkarteko zuzendari Maria Asuncion Azpeitiaren esanetan, errezeta elektronikoen helburu nagusia erabiltzaileari une-oro zerbitzu ezin hobea eskaintzea da. Era horretan farmaziek ospitaleetako datu basean sartzeko aukera izango dute, baita familiako medikuaren edo pediatra nahiz espezialistaren datu basean ere.

Proiektu honen ondorioz, betidanik erabili izan dugun eskuko errezeta desagertuko da eta honekin batera medikuen letra ulergaitza. Hemendik aurrera formatu elektronikoen bidez lan egingo dute eta ordenagailuko pantaila piztu orduko, farmazilariak medikuen aginduen berri izango dute.

Sistema honek abantaila handia du erabiltzailea edadetua bada. Askotan medikuak ematen dion informazioa ez du ulertzen edo ahaztu egiten zaio. Sistema horrekin botikariek medikuak emandako informazioa jo dezakete gaizki-ulerturik izan ez dadin. Bestalde, bezeroari atxikitako informazio guztiaren konfidentziasuna ziurtatzen da eta, hala, nahi duen farmaziara joateko eskubidea du.



Zabalik 198 zk. Moldatua

Ulermen galderak

- Zertan datza errezeta elektronikoaren proiektu hau?

- Zein dira proiektu honek dakartzan abantailak?

Atzizkiak landu

Atal honetan **-ari**, **-tzaile** eta **-gaitz** atzizkiak errepasatuko ditugu.

A. -ari (-kari, -lari). Atzizki honek agentea, jarduera profesionala adierazten du. -kari eta -lari atzizki horren aldaerak dira.

1. Bilatu aurreko testuan atzizki hori duten hitzak.

2. Erantzun galderari atzizkidun hitzak erabiliz. Nola deitzen zaio...

- a) zapatak egiten dituenari? _____
- b) taberna batean lan egiten duenari? _____
- c) arraunean aritzen denari? _____
- d) bertsoan aritzen denari? _____
- e) aizkoraz enborrak mozten dituenari? _____
- f) ehizan dabilenari? _____
- g) sukaldean aritzen denari? _____
- h) biblioteka batean lan egiten duenari? _____
- i) Eusko Jaurlaritzako presidenteari _____
- j) kamioiak gidatzen dituenari? _____

B. -tzaile. Atzizki honek, aurrekoak bezala, zerbait egiten duena adierazten du eta aditzei eranstean zaie.

1. Bilatu aurreko testuan atzizki hori duen hitza.

2. Erantzun galderari atzizkidun hitzak erabiliz. Nola deitzen zaio...

- a) ikertzen duenari? _____
- b) hiltzen duenari? _____
- c) erretzen duenari? _____
- d) beste hizkuntza batera itzultzen duenari? _____

C. -gaitz. Atzizki honek zailtasuna, ezintasuna adierazten du.

Adibidez: sinetsi (creer)

Egunkariko berri hau erabat sinesgaitza (sines-teko zaila, ezin da sinetsi) da .

1. Bilatu aurreko testuan atzizki hori duen hitza.



2. Erantzun galderari atzizkidun hitzak erabiliz. Nola deitzen zaio...

- a) sendatzeko zaila den gaixotasunari? _____
- b) aldatzeko zaila denari? _____
- c) egoera berrietara moldatzeko zaila denari? _____


9.

"Osasun txokoa" irratsaioa

Jarduera



Irakurmena



Idazmena

Irratian eta telebistan oso ohikoak dira osasunari eskaintzen zaizkion programak. Ikus-entzuleek dituzten kezak, jakinmina, sintomak... idatzi eta bidaltzen dituzte, sendagile batek aholkuak, azalpenak... emateko.

Hona hemen Felix Ortiz de Mendivil entzuleak bidalitako eskutitza. Guk paragrafoak desordenaturik eman ditugu. Ordenatzeko, paragrafoen laburpena jarri dizugu lagungarri; beraz irakurri paragrafo guztiak eta laburpen egokiak aurkitzen dituzunean, kopiatu paragrafo osoa aldamenean.



Felix Ortiz de Mendivil
El muro kalea, 5, 2.ezk
Tutera - Nafarroa

"Osasun txokoa"
irratsaioaren arduraduna
Eitb. Miramon.
Donostia - Gipuzkoa

Agur t'ardi

Nire iradokizuna kontuan hartuko duzulakoan, agur.

Larunbatero Julian Bereziartua medikuak entzuleek eskutitzetan proposatzen dituzten gaietara erantzuna ematen die. Azalpen horiek guztiak oso interesgarriak eta oso argiak iruditzen zaizkit.

Felix Ortiz de Mendivil naiz, zuen irratsaioaren entzule amorratu bat. Larunbatero egoten naiz zuen irratsaioa noiz hasiko zain, oso interesgarria delako eta osasunaz asko ikasten ahal delako.

Eskutitz honen bidez datorren larunbateko gaia proposatu nahi nioke: buruko mina. Beraz, buruko minaz hitz egingo balu eskertuko nioke; izan ere askotan izaten dut buruko mina, nik eta beste askok, arazo hau oso zabaldua dagoela iruditzen baitzait.

Kopiatu eskutitz honetako paragrafoak dagokien kuadroan



1. paragrafoa

-Aurkezpena
-Irratsaioarekiko
interesa

2. paragrafoa

-Irratsaioaren edu-
kiaren deskriba-
pena


3. paragrafoa

-Irratsaioarako gaia-
ren proposamen
eta justifikazioa

10.



Agur t'erd

Jarduera



Idazmena

Aurreko jardueran ikusi duzu Felixek irratira bidalitako eskutitza. Orain zeure txanda da. Felixen eskutitza eredutzat hartuta edo hartu gabe, idatzi gutun bat irratira bidaltzeko, osasunari buruzko kezka, azalpen eta abarren erantzunak eskatuz.



11.

Jarduera

Julian Bereziartua sendagilearekin solasean



Entzumena

Felixek zortea izan du; izan ere irratira heldu da eskutitza eta Julian Bereziartua sendagileak buruko minaz hitz egingo du. Adi entzun zer dioen eta osatu eskema hau!

BI MOTAKO BURUKO MINA BEREIZI DU JULIANEK, BURUKO MINA ZERK ERAGITEN DUEN AZALTZERAKOAN.

1. Organikoak: gure gorputzean hutsegiteren bat gertatzen denean.
2. Organikoak ez direnak: buruko mina zerk eragiten duen ez dago jakiterik. Kanpoko faktoreek eragiten dute.



1. Organikoen artean

1. arrazoa: buruan burmuinak ditugu eta meningeak (tela moduko batzuk) burmuinak tapatzen dituztenak.

Meningeak noiz eragiten dute mina?

2. arrazoa: gaixotasun batek, entzefalitisak, eragiten du.

Zergatik gertatzen da entzefalitisa?

3. arrazoa. Kiste batzuek, onek zein txarrek, burmuinak sakatzen dituztelako eragiten da buruko mina.

2. Organikoak ez direnen artean

Askotan ez dakigu zergatik sortzen den buruko mina.

Ematen du eragiten duela buruko mina. Horregatik kezka, estresa duten pertsonek izaten dute buruko mina. Minik handienetakoa ematen dutenak migrañak eta jakekak dira.

Noiz gertatzen dira migrañak eta jakekak?

Trigeminoa buruan dugun nerbio bat da.

Noiz eragiten du trigeminoak mina?

Nolakoa da nerbio honek eragiten duen mina?

Min hau sufritzen dutenek esaten dute suizidatzeko moduko mina dela.

12.

Jarduera

Zenbat buru hainbat... buruko min



Entzumena

Eta zuk izaten duzu buruko minik?

Entzun Noel Elorga enpresa-gizonari egin dioten elkarrizketa. Bi taldetan banatu. Batzuk *A ikaslea* fitxa izango duzue eta besteok *B ikaslea* fitxa. Entzun eta fitxan eskatzen den informazioa hartu.

Gero A eta B taldekoak elkartu jaso duzuen informazioa konparatu eta osatzeko.



Mintzamena

A ikaslea

Askotan izaten du buruko minik?

Familiako beste norbaitek ere bai?

Nola kentzen du buruko mina?

B ikaslea

Asko irauten dio buruko minak?

Zerk eragiten dio buruko mina?

Zein dira beste erremedio natura-lago horiek?

**Eta zuk izaten duzu buruko minik?**

1. Zerk eragiten dizu buruko mina?
2. Zer egiten duzu buruko mina kentzeko?
3. Zer erremedio ezagutzen duzu buruko minari aurre egiteko?

13.

Jarduera

Hizlari hitzak ere -ari atzizkia du



Irakurmena



Mintzamena

Jarri binaka, irakasleak 10. jardueran prestatu dituzuen eskutitzak zuen artean banatuko ditu eta. Tokatu zaizuen eskutitza irakurri ondoren, erantzuna prestatuko duzue. Nahi baduzue, informazio pixka bat har daiteke entziklopedia batetik, edo bestela asmatu ere asma daiteke. Gero bikote bakoitzak eskutitza irakurri behar du eta ikaskideen aurrean erantzuna ahoz emango du. Azalpena emateko orduan, beheko eskema duzu lagungarri.



Diskurtso nozioak

Aurkezpena:	...k bidalitako eskutitza dugu esku artean eta esaten du. Gu erantzuna ematen saiatuko gara.
Gaiaren sarrera:	Hasteko...
Jarraipena:	Gai honekin lotuta,... / Gai honi dagokionez,...
Informazioa banatzeko:	Alde batetik... bestetik...
Laburtzeko:	Esan nahi dudana da... / Laburbilduz...
Konklusioa emateko:	Beraz,... / Ondorioz,...
Bukatzeko:	Bukatzeko... / Azkenik zera esango nuke...

14.

Jarduera


Especialistarekin kontsultan



Entzumena

A


Sendagile espezialista eta gaixo baten arteko elkarrizketa entzungo duzu oraingoan. Gorputzaren barruko organo batzuen izenak entzungo dituzu. Jaso ahalik eta gehienak.



B

Organo batzuen izenak ezagunak dira, beste batzuk, berriz, ez. Organoen definizioak kontuan hartuz, jarri marrazki bakoitzari dago-kion organoaren izena.














1. Gorputzari aginduak ematen dizkiote.
2. Odola gainerako organoetara bidaltzen du.
3. Arnasa hartzen dute.
4. Prozesu metaboliko gehienetan parte hartzen du.
5. Odolean dauden hondakinak era likidoan kanporatzen dituzte.
6. Digestio-hondakinak era solidoan kanporatzen dituzte.
7. Barruan digestioa egiten da.



C

Ulermen galderak

Entzun berriz elkarrizketa eta erantzun galderai. Markatu X batez erantzun egokiak.

1. Zertara joan da Gema espezialistarengana?

EGIA

GEZURRA

a. Proben emaitzak ezagutzera.

b. Sabelean min izugarria duela esatera.

c. Operatu nahi ez duela esatera.

2. Odol-analisiak eta gernu-analisiak ere egin dizkiote. Zein dira emaitzak?

EGIA

GEZURRA

a. Odol-analisia ongi dago, bestea, berriz, ez.

b. Gernu-analisia ongi dago eta bestea ere bai.

c. Gernu-analisia da ongi dagoen bakarra.

3. Zer probak erakusten du argiago mina zerk eragiten dion?

EGIA

GEZURRA

a. Erradiografiak.

b. Ekografiak.

c. Eskanerrak.

4. Zertatik operatu behar dute?

EGIA

GEZURRA

a. Gibeletik.

b. Giltzurrunetatik.

c. Urdailetik.

d. Hesteetatik.

5. Operatu behar dutela entzun duenean, nola erreazionatu du?

EGIA

GEZURRA


a. Beldurtu da.

b. Kezkatu da.

c. Berdin zaio.

d. Mesfidantzaz.

e. Haserretu da.



15.

Jarduera

Organo-ematea



Irakurmena

Organo-ematearenak osasunean berebiziko garrantzia duenez, hona hemen transplanteen prozesu guztia deskribatzen duen artikulua.


Testu honek zuriuneak ditu eta, aukeran emanda, hitz egokia hautatu behar duzu.

ORGANO-EMATEA MUNDUKO TASA ALTUENAK IZAN ARREN, ORAINDIK DENA EZ DAGO EGINA

Oraindik ez da nahikoa ematen

Eusko Autonomi Elkarteko organo-emate tasa munduko altuenetakoa den arren (44 emate milioi bat biztanleko Eusko Autonomi Elkartearen, eta 35 Nafarroan) ez da nahikoa itxaron-zerrendak desagerrarazteko. Ehun familiarik hamarrek ezetz esaten dute hildako senitartekoaren organoak emateko aukera eskaintzen zaienean.

OLATZ ELOSEGI



Erlojuari begira egin behar izaten den lan zehatza

Organo bat transplantatu nahi izateak ehun lagun inguru mugiaraz ditzake, eta ordu gutxiko epea ematen zaie, gainera, lanerako. **1** _____, prozesua xehe-xehe zaintzen da, edozein zalantza argituko lukeen gardentasunaz. Koordinatzaile baten lana ezinbestekoa da dena ongi irteteko.

Ehun lagun inguruk hartzen dute parte organo baten transplantean, eta zenbait kasutan, **2** _____, batzuk besteengandik ehunka kilometrora daude. Kirurgialariak, laborategietako adituak, epaileak, anbulantziak, ertzainak... Ordu gutxitan egin beharreko lana izaten da eta guztien arteko koordinazioa ezinbestekoa da, denbora alferrik galtzea pentsaezina baita. Hala, organo-emateak burutzen diren zentro guztietan transplanteen koordinatzaile bat edo bi egon ohi dira, emate bolumenaren arabera.


Emate prozesua pertsona bat ospitale bateko unitate kritikoan hiltzen denean hasten da –ospitaletik kanpo geratuz gero, aukera gutxi daude–. Heriotza denean haren ardura duen medikuak protokolo bat jarraitu behar izaten du. **3** _____, goardian dagoen transplante-koordinatzaileari abisatu behar dio. Gaixoaren heriotza entzefalikoaren diagnostikoa **4** _____ hasten da emate prozesua. Emailea azertu egiten da, etorkizuneko hartzaileei inolako patologiarik ez transmititzeko. Ebaluaketa horiek **5** _____, analisi, ekografia eta gainerako azterketak egiten dira noski, organoak egoera onean daudela ziurtatzeko. Hori **6** _____, familiarekin hitz egiten da. Egoeraren berri eman ostean, hildakoak berak bizirik zegoenean bere organoak ematea erabaki ote zuen, edo horri buruz inoiz hitz egin ote zuen galdetzen zaio familiari. Hildakoak bizirik zegoenean honi buruz ezer esan ez bazuen, familiarekin hitz egiten da iritzia emateko. Baietz esanez gero, zenbait kasutan epailearen baimena ere behar izaten da, auto istripuen kasuan, adibidez.

Familiak baiezkota emanaz gero, organoa ateratzeaz arduratuko den taldearen txanda iristen da. Eta ebakuntza-gelako lana hasten da, **7** _____, organoa ateratzeko. Horixe da transplantearen lehenengo fasea, eta koordinatzaileak fase osoan hartzen du parte; familiarekin hitz egin, epailearen baimena eskatu, arazo logistikoak konpondu... hildakoaren ebaluaketa ere berak egiten du dagokion espezialistarekin batera, **8** _____, nefrologoa giltzurrunen kasuan, kardiologoa bihotzarenean, hepatologoa gibelarenean...

Bitartean, hartzailea prestatuz joaten da

Fase honetan koordinatzaileak eskaini egiten du emaila. **9** _____, bere erkidegoko transplante taldeei egiten die eskaintza, baina bere erkidegoan hartzaileak ez badago Transplanteentzako Bulego Nazionalera eskaintzen du, Madrilerara. Emailaren ezaugarrien berri ematen du koordinatzaileak, eta talde transplantatzaileak erabakitzen du zein den organo hori une horretan jasotzeko hartzaile egokiena. Bihotz, birika eta gibelaren kasuan hautaketa urgentzia mailaren edo itxaron-zerrendaren arabera egiten da, eta odolaren eta gorputzaren tamaina hartzen dira kontuan. Giltzurrunen kasuan, beste baldintza bat ere bete behar da: tipaje immunologikoa delakoa, **10** _____, norberaren matrikularen antzekoa. Hala, matrikula horien antzekoa duen hartzailea bilatu behar da. Egun informatika programa baten bidez lortzen da hori.


Hori guztia ordu gutxiko epean egin behar izaten da. Heriotza entzefalikoaren diagnostikoa burutzen denetik denbora gutxi izaten da familiarekin hitz egiteko, azterketak egiteko eta beste. Eta gero jada organoa ateratzen denean, zer esanik ez. Organo bat gorputz batetik atera eta beste batean ezarri eta odola bertatik igarotzen den arteko denborari iskemia hotza esan ohi zaio. Hori bai, organoak gorputz batetik kanpo zenbat eta denbora gutxiago igaro, orduan eta hobea da **11** _____, organoak gutxiago sufrituko duelako eta gero ere hobeto funtzionatuko duelako.



Beti ez dago heriotza arte itxaron beharrik

Egun 43 organo transplanta daitezke, eta ez dago beti hiltzera arte itxaron beharrik. Bikoitzak diren organoak, giltzurrunak esaterako, dagoeneko ematen dira familiakoen artean, eta gibelaren zati bat eman duenik ere bada. Bizirik egiten diren transplanteen artean ezagunena, hezur-muinarena da. Berez, 18 eta 55 urte arteko edozein pertsona izan daiteke emailea, bere bizitza edo hartzailearena arriskuan jartzen ez bada, noski. Hezur-muinean gaixotasunen bat dutenek izaten dute transplante horren beharra: leuzemiak jota daudenean, adibidez. (...)

Zabalik 208 zk. Moldatua



a. Hala ere **1**
b. Behintzat
c. Ere

a. beraz **2**
b. gainera
c. dena dela

a. Hala ere **3**
b. Ordea
c. Lehenik eta behin

a. egiaztatu aurretik **4**
b. egiaztatu ondoren
b. egiaztatzen ari direla

a. eginda daudela **5**
b. egin beharrean
c. egiten ari direla

a. amaitu aurretik **6**
b. amaitzen ari direla
c. amaitzean

a. hala ere **7**
b. berriz
c. orduan

a. hau da **8**
b. izan ere
c. ere bai

a. Alde batetik **9**
b. Printzipioz
c. Azkenik

a. hots **10**
b. zera
c. hortaz

a. hots **11**
b. baina
c. noski

16.
Jarduera

Transplanteen inguruan





Mintzamena

Ikusi ondoko grafikoa, aurreko artikuluari dagokiona. Espainiako datuak munduko beste herrialde batzuetakoekin konparatzen baditugu, ikusiko dugu emate-tasa altuena dela. Hala ere ospitaleetako itxaron-zerrendek argi uzten dute oraindik nahikoa ez dela.

Zuk nola ikusten duzu arazo hau? Elkartu zure ikaskideekin eta hitz egin galdera hauek aurrean dituzuela.

ORGANO-EMATEA AUTONOMIA ERKIDEGOKA



Zabalik 208 zk.

1. Taldekoen artean, laburtuko zenukete transplanteetan segitzen den prozesua?
2. Informazio nahikoa al dago transplanteei buruz?
3. Zuen ikastetxeetan hitzaldirik edo beste kanpainiarik egin al da organo-emateen kopurua gehitzeko?
4. Nafarroan familien %10ek gutxi gora-behera ez dute baimenik eman haien hildakoen organoak trasplantatu ahal izateko. Zergatik ote?
5. Etxean hitz egin al duzue inoiz gai honetaz? Hala bada, zein da iritzi nagusia: baiezkoa ala ezezkoa? Arrazoitu zuen iritzia.
6. Gazteek zaharrek baino gutxiago ematen dituzte organoak trasplanteetarako. Zergatik?

17.

Jarduera

Jolasean arituko gara oraingoan



Mintzamina


Jolasean aritzeko prest? Ongi etorri osasunari buruz prestatu dugun “OKA”ra. Hartu, orduan, tableroa eta dadoak, eta hasi. Arauak-eta irakasleak azalduko dizkizue.



18.

Jarduera

Ahotsa jartzen



Idazmena

Seguru gaude unitate honetan asko ikasi duzula. Orain duzu ikasitako guztia erakusteko aukera ezin hobea. Jarri binaka eta soinurik ez duen bideo-sekuentzia bat ikusiko duzue.

Sekuentzia ongi ikusi ondoren, saiatu irudiekin bat datozen hitzak jartzen.



Mintzamina



19.

Jarduera

Petrikiloen jakinduria



Entzumena

Ohiko medikuntzaz gain, bada "medikuntza alternatiboa" deritzona. Horren esparru bat belarrekin sendatzen dutenek betetzen dute. Eta gurean oso ezagunak dira "petrikilo" izenaz ezagutzen direnak.

Ikusi herri sendagintzari buruzko bideo pasarte hau eta erantzun galdera hauei.

- 1) Historian (erromatarren garaian, Erdi Aroan) zer nolako fama zuten petrikilo eta herri sendatzaileek?
- 2) Euskal petrikiloak batik bat zertaz baliatzen dira sendabideak egiteko?
- 3) Kamararen aurrean lan egitea gustuko dute?
- 4) Nola ikasi dute petrikilo gehienek?
- 5) Garai batean uste izaten zen jakinduria hau:
 - data jakin batzuetan jaiotzen zirenek hartzen zutela?
 - akats fisikoak ez zituztenek hartzen ahal zutela?
- 6) Zegamako Solita izena duena euskal petrikilo horietariko bat da. Zer ematen die gaixoei ondoeza sendatzeko?
- 7) Zein da Solitaren espezialitatea?
- 8) Solitak kontsulta kobratzen die bisitan joaten zaizkionei?
- 9) Solitak zenbatean saltzen ditu bere ukenduak?
- 10) Ramona Ayesta beste petrikilo bat da. Zein da bere espezialitatea?
- 11) Ramonak fede eta pazientziarekin bakarrik sendatzen du?
- 12) Mikel gaztea zertara joaten da Elisabete Zurutuzarengana?
- 13) Zein dira Mikelen osasun arazoak?



20.

Petrikiloak

Jarduera




Mintzamina

Bideoa ikusi eta gero, elkartu ondokoarekin eta erantzun galdera hauei:

A

Herriren batean inoiz ikusi al duzu petrikilorik?



B

Petrikilo baten eskuetan jarriko zinateke?



C

Petrikiloak: dohaina ala iruzurra?



21.

Kontu txikiak

Jarduera



Entzumena

Bukatzeko, umeei kantatzen zaizkien abesti batzuk proposatzen dizkizugu:



Haurrak, mina hartu berritan, negarraldia lasaitzeko
crabili ohi dira, besteak beste.

Haurrak biziki eskertzen du mina hartzen duenean,
larria ez bada behintzat, ondorengoak entzutea. Askotan
mirariak egiten dituzte, maitekiro eginez gero.

Sendatzeko; mina kentzeko


Joan da mine

Joan da mine,
Putz urrino.
Joan (jourdi)ko mine
Joan da,
(Perko)ren mine.*

* Perko, Ura, Mairu, Maiti, Gurez. Edoz. Amairu. ...



Jatorria: Inia askotan
erabiltzen da. Guri irakurketa
jaso dugu. Lapurtin ere
erabiltzen da "Juegno"
infantiles en Vasconia"ren
arabera.



Haur eta gurasoen elkargozamenerako



Hurrei eta hain haurrak ez diren batzuei beren mina erakustea gustatzen zaie. Hurrengo hau ironikoki zuzentzen zaie.

Lauzirien pupue
Eta zortzi maraien (maravedien) trapue

Sendatzeko; mina kentzeko



Bost xentimoen pupue
Hamar xentimoen trapue.

**BETIKO
KANTA**



Kukuruku

Kukuruku	Zer ari da?
Zer duzu?	Artoa eraiten
Buruan min	Artoa zertarako?
Nork egin?	Ogia egiteko
Axeriek	Ogia zertarako?
Axerle non da?	Mundu guztia salbatzeko
Beneitiko bordan	

kukuruku



Haur eta gurasoen elkargozamenerako

Kontu Txikiak.
Haur eta gurasoen elkargozamenerako.

Sortzen. ikasbatuaz.

Arian-arian, edo zer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hiru-naka antzeko memorizazioa izan duzuen.

Lexikoa

Nozioak

**Baliabide
linguistiko
berriak**